


EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BIZITZA ANTZEZLAN BATEAN

Emakume bat enpresa batera abiatzen da idazkari lan egiteko. Pertsonal Arduradunak, gizona noski, "normala denez" zenbait galdera egiten dio bere egoeraz, hala nola, ezkondu/ezkongabea den, umerik duen, eta abar.

Ez da beste munduko istorioa, sarritan gertatzen baita, baina zer gertatuko litzateke alderantzizko kasuan, gizona balitz andreari lana eskatzen diona?



"La Papa"ren aktoreak sketch batean.

IGNACIO PEREZ

Erantzuna La

Papa antzerki taldeak eman liezaguke bere antzezlan ikustera joanez gero. Baina ez pentsa, hau ez da edonolako antzezlan bat, batipat neska-mutilei zuzendutako baina baita nagusientzako material pedagogikoa baizik. Zertaz? Emakumeen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasunaz, elkarlanaz, beraien

arteko harremanetaz...

Antzezlan hau egitasmo garrantzitsuago baten zati bat da, adierazpen bat. Proiektu hau Ermuko Emakumearen Udal Kontseiluaren barruan dagoen Hezkidetza Taldeak darama aurrera. Talde honek ekintza egitarau bat pres-

tatu zuen helburu batzuk betetzeko, hots, hezkidetza, aukera berdintasuna, erantzunkidetasuna... eta beste material didaktiko bat bezala (bideoak, komikiak...) zera planteiatu zion Ricardo Combiri, La Papa taldearen zuzendariari, sketch batzuk idatzi eta antzeztea gai horiek Ermuko eskoletan gara-

Urdaitegia

MAITE

Merkatu Plaza, 40
Telefona: 17 24 12

IZOTZ
KONJELATUAK



Ermuko Merkatua, 54 eta 55 postuak • ☎ 17 41 01
Arrasateko Merkatua • ☎ 77 05 98

OKINDEGIA
Ignacio Peña



Okindegiko ☎ : 17 01 69
Etxeko ☎ : 17 14 55

Goienkalea, 12 - behea ERMUA

tu asmoz, azkenean beste herri batzuetan ere eskaini diren arren.

Hala ere, La Papa une horretan bakarrik izenez esistitzen zen. Bere sorrera Ermuko Antzerki Tailerrean koka dezakegu, helburu batekin, herri honetan bere burua erabat antzerkira dedikatu nahi zionari talde batean lan egiteko eta kanpoan aritzeko aukera eskaintzea, Antzerkiaren Tailerraren betebeharra beste bat delako. Egitasmo honek lehen unean ez zuen aurrera egin, taldea izenez eta legez izaten jarraitzen bazuen ere.

Oso garrantzitsua da emakume ta gizonen arteko harremanen gaian lan egiten jarraitzea, guraso-irakasleen aldetik. Ez dadila antzerki ikuskizun soil bat bezala gelditu.

Horrela, esan liteke La Paparen benetako jaiotza egitasmo honek bultzatu duela, eta partaide baten esanetan *"hainbeste antzerkizale dagoen herri honetan horrelako talde bat izatea luxu bat da, aprobetxatu eta bultzatu behar den zerbait"*.

Une honetan taldeak bost partaide ditu: Manu Aizpuru eta Juanjo Perez teknikariak, Manuel Moreno eta Izaskun Asua aktoreak eta lehen aipatutako Ricardo Combi zuzendaria. Bost pertsona hauek burutzen dute antzezlanak. Berau hiru sketch-ez banatzen da, ordubeteko saioan zehar.

Hasieran aipatutako kasua lehen sketch-ari dagokio. Bigarrena etxe barruko erantzunkide-

tasunari zuzentzen zaio, zeren, zer gertatzen da normalean kanpoan lan egiten duen bikote bat etxean dagoenean? gizonak atsedan hartzen duela eta andrazkoak lanean jarraitzen duela, ezta?. Hirugarren sketch-ean, aldiz, harreman afektiboak jorratzen dira, hau da, mutilak gustoko du neska, neskak gustoko du mutila, baina ez bata ez besteak ez dute elkarrekin geratu direla aprobeztatzen sentitzen dutena adierazteko, bakoitzaren inhibizioak eta bizi dugun kultura direla medio.

Esana dugu jada antzezlanak beste herri batzuetan ere burutu

delak, baina aipatu beharreko da apirilaren 26 delak euskarazko bertsioa taularatzen den lehen aldia, Anaitasuna Ikastolaren ikasle, guraso zein irakasleentzat, zeren dioten moduan, *"ez baduzu gurasoekin ere lan egiten alperrikakoa da dena, ze ikasleak gauza bat ikusi arren taula gainean, etxera joaterakoan alde-rantzizkoa ikusten badu..."*. Ez hori bakarrik; behin eta berriz azpimarratzen diguten moduan, *"oso garrantzitsua da material eta gai horrekin lan egiten jarraitzea antzezlanaren ostean. Ez dadila gelditu antzerki ikuskizun soil bat bezala"*. Helburua ez da bakarrik ondo pasatzea, heziketa baizik.

Iosu Etxaniz

HARATEGIA

URDAITEGIA

ROSA MARI

**Baserriko okela
Etxeko odoloste eta txorizua**


**Zubiaurre, 22
Tfnoa. 17 06 80**

QUETZAL

Opari denda

Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea ☎ 17 43 62



BAR GERALEKU

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5. • ☎ 17 00 32

DROGETENITTURRI iragarkiak

60x85 mm. = 2.000 pzta.